

Martxoa

Apirila

Maiatza

Ekaina

Uztaila



27 Dagokion maila gainditua izatea eta horren berri HABEri emana izatea

30 Matrikula egiteko epea zabaldu

12 Matrikula egiteko epea itxi

24 Behin-behineko zerrenda argitaratu (24-28 erreklamazioak)

9 Azterketarien behin betiko zerrenda

20 Lehen mailako proba idatzia (9:00etan)
Bigarren mailako proba idatzia (11:30ean)

13rako Azterketa idatzien emaitzak

19-23 Mintzamina neurtzeko probak

15erako emaitzen ebazpena

EGUTEGIA

EBAZPENA, 2006ko martxoaren 10ekoa (29an argitaratua), HABEren zuzendari nagusiarena, euskararen lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko 2006 urteko azterketen deialdia egiten duena.

AGINDUA, 2003ko abuztuaren 6koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren mailak egiaztatzeko sistema zehazten duena.

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 24koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua onartzen duena (EHAA 26, 2000-02-08).

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

2006ko

AZTERKETA-DEIALDIA

**Euskalduntzearen lehen
eta bigarren mailak**

HABE

JAKINGARRIAK

BALDINTZAK

Euskallegi eta euskararen autoikaskuntza zentroetan matrikulatua egon izana 2005eko apirilaren 11tik 2006ko martxoaren 30era bitartean.

- Lehen mailarako: lehen maila edo seigarren urratsa gaitutua izatea, azterketaren matrikula egiteko epea hasten denerako.
- Bigarren mailarako: bigarren maila edo bederatzigarren urratsa, edo Alfabetatzen I maila gaitutua izatea, azterketaren matrikula egiteko epea hasten denerako.
- Dagokion maila euskallegian edo zentroan gaitutua gabe, goragoko mailan matrikulatua dagoen ikasleak aukera izango du aurreko mailara aurkezteko (Maila gaitutuzeko 120 orduko modulu berezietan matrikulatuak izan ezik).

MATRIKULA EGITEKO EPEA

Epea 2006ko martxoaren 30etik apirilaren 12ra (biak barne) izango da. (Matrikulatuen behin-behineko zerrenda apirilaren 24an argitaratuko da)

NOLA EGIN MATRIKULA?

INTERNET bidez HABEren www.habe.org ataria erabiliz.

ZENBATEKOA DA MATRIKULA eta NOLA ORDAINDU?

Matrikularen prezioa **12 €koa** izango da maila bakoitzeko. Bi mailetara aurkeztu nahi duenak, horretarako baldintzak betez gero, bi matrikula egin beharko ditu.

WEB atarian datuak sartu ahalean, sistemak berak esango dio azterketariari onartua den ala ez. Ondoren, hiru aukera emango dizkio matrikula-ordainketa egiteko: lehenengoa, sarean jarraituz, banka elektronikoa erabiliz; bigarrena, kutxa automatikoren batean, baldin eta barra-kodeak irakurtzen baditu; eta hirugarrena, ohiko sistema erabiliz, kutxan edo banketxean bertan.

ZENBAT DEIALDI IZANGO DIRA?

Aurten deialdi **bakarra** izango da.

NON IZANGO DIRA AZTERKETAK?

Bai ahozko proba eta bai idatzia, ikasle-kopuruak kontuan hartuta, euskallegietan edo beste leku handiagoetan egingo dira. Edonola ere, euskallegiak edo zentroak jakinaraziko dio azterketariari zein izango den bere aztertokia.

NOIZ IZANGO DIRA AZTERKETAK?

Lehen mailako azterketa idatzia: maiatzaren 20a, goizeko 9:00etan.

Bigarren mailako azterketa idatzia: maiatzaren 20a, goizeko 11:30ean.

Azterketa idatzia gaitutuz dutenek egingo dute ahozko azterketa.

Azterketa idatzien emaitzak **ekainaren 13rako** argitaratuko dira.

Ahozko azterketak ekainaren 19tik 23ra egingo dira. Euskallegiak edo autoikaskuntza zentroak jakinaraziko dio ikasle bakoitzari azterketaren eguna eta ordua.

Azterketaren ezaugarriak

- Lehen eta bigarren mailako azterketek lau trebetasun neurtuko dituzte: **mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena.**
- Aurten, **lehen proba idatzia izango da**, eta entzumena, irakurmena eta idazmena neurtuko ditu.
- Bigarren proba ahozkoa izango da**, eta mintzamena neurtuko du.
- Azterketa idatzia gaitutuz duten ikasleek egingo dute bigarren proba.
- GAIEZ GAI** erara emango zaio ikasleari zati bakoitzaren emaitza eta azken emaitza.

Emaitzak

Proba guztiak zuzendu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak ebatziko ditu behin-behineko emaitzak. Zerrenda www.habe.org atarian eta euskallegi eta autoikaskuntza zentroetan argitaratuko da.

Erreklamazioak

Azterketa idatzien emaitzak argitaratzen direnetik, 5 egun natural izango ditu erreklamazioa egin nahi duen ikasleak HABEren zuzendari nagusiari idatzia zuzentzeko.

Era berean, azterketa osoa amaitu eta emaitzen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik, 5 egun natural izango ditu erreklamazioa egin nahi duen ikasleak HABEren zuzendari nagusiari idatzia zuzentzeko.

Egiaztagiriak

Azterketa hauek gaitutua eta mailaren bat egiaztatzen duten azterketariak Kultura sailburuak luzatutako ziurtagiria jasoko dute.

Trebetasunak banan bana

Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, zenbait galderari erantzun beharko die azterketariak. Erantzun okerrengeatik ez zaio punturik kenduko. Probaren iraupena 35 minutukoa izango da lehen mailan eta 45ekoa bigarrengoan.

Idazmena

Egoera bat emango zaio azterketariari testuinguru jakin batean, 150 hitz inguruko testu bat edo 100 inguruko bi testu idazteko lehen mailan; bigarrengoan, aldiz, 250ekoa edota bi 150ekoak. Iraupena 60 minutukoa izango da bi mailetan.

Entzumena

Ohiko gaien inguruko bi testu entzun/ikusiko ditu. Testu horien ulermena frogatu beharko du egiten zaizkion galderei erantzunez. Probak gehienez 25 minutuko iraupena izango du bi mailetan.

Mintzamena

Aurrez aurre arituko da azterketaria aztertzaileekin edo beste azterketari batekin. Proba elkarrizketan eta gai baten inguruko azalpenean oinarrituko da. 10 minutu emango ditu azterketariak proba egiten eta horretarako 15/20 minutu izango ditu prestatzeko.

Puntuazioa

Proba idatzia %50 gutxienez %30	Irakurmena	% 20	20 puntu	
	Idazmena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
Ahozko proba %50 gutxienez %30	Entzumena	% 20	20 puntu	
	Mintzamena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
Guztira		% 100	100 puntu	Gutxienez 60